

Memoria politiko organizatiboa

1. Sar hitza

Lerro hauen helburua da EH Bilduren azken lau urteotako balantze organizatiboa egin eta Kongresuko ponentzia organizatiboari oinarria/abiapuntua jartzea. Horretarako, aurreko Kongresuan hartu genituen erabaki organizatibo nagusiak gogoratu eta haietako bakoitzean zertan aurreratu dugun, zertan egin dugun huts eta aurrera begira zer aldatu beharko genukeen laburbiltzen saiatu gara. Beraz, lerroon helburua ez da balantze zabal-zabal eta xehe-xehe bat egitea, afera nagusien gaineko balantze sintetiko bat egitea baizik.

Hori esanda, eta aurrera egin aurretik, hainbat ohar:

1. Balantzea osatzeko azken Kongresutik hona egiteke utzitakoei edota egindako hutsei erreparatuko diegu noski, antolaketak eta funtzionamendu arloan egin beharreko egokipenak detektatzea baita ariketa honen helburua. Baina aurrerapenei eta azieroei ere erreparatu beharra dago ongi egindako guztiaren kontzientzia hartu eta balantze orekatu eta eraginkorra egingo badugu.
2. Balantze honetan ez gara ardura indibidualen balorazioa egiten ari, marko eta aparatuen baizik. Bestalde, marku eta aparatuen balantze

hori ikuspuntu organizatibo batetik egiten ari gara, ez ildo politikoaren garapenarenetik.

3. Azkenik, balantzea egiterakoan kontutan hartu behar dira ere beste hiru gauza:
 - » Zein egoeratik abiatzen ginen; alegia, non geunden duela lau urte eta non gauden orain.
 - » Azken urteotako jarduna zein testuingurutan egin behar izan den, alegia, testuinguru baldintzak zeintzuk izan diren. Urte hauetan erronka kolosalei egin behar izan diegu aurre, hala nola hainbat hauteskunde deialdiri baita egoera ekonomiko eta sozial zail bati ere.
 - » Azken urteotan gizartean, espazio kolektiboetan, militantzia ereduetan eta, oro har, parte-hartze politikoan izan diren aldaketa sakonak. Zentzu horretan, gure jardura politikoaren eta egoera organizatiboaren azterketa garai honetako errealitate sozio-politikoaren eta soziologikoaren perspektibatik egin beharra dago.

2. Intuizio/hipotesi politiko-organizatibo nagusiak

1. EH Bilduren erronkak

EH BILDUREN IZAERA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzekoak/indartzekoak
EH Bildu subjektu politikoak koalizio baten forma, alderdi baten egiturak eta mugimendu izaera ditu, eta hiru antolakuntza tradizio horien ezaugarriarik onenak biltzen ditu: koalizioen aniztasun ideologikoa, alderdi egituren eraginkortasuna eta herri mugimenduen parte-hartzea eta horizontaltasuna.	Euskal herritar askorentzat da EH Bildu erreferente argia eta, horrez gain, herritar horiek EH Bilduren komunitateko partaide ere sentitzen dira. Horren erakusle dira hauteskundeetako boto emaileak zein EH Bilduren mobilizazioetan parte hartu duen jende kopurua. Azken urteotako mobilizazioen dinamika eta arlo instituzionalean egindako lana lagungarri izan dira EH Bildu gorpuzteko eta zabaltzeko.	Urratsak egiten jarraitu behar dugu, sektore gehiago erakartzeko eta ezkerreko proiektu independentista sendotzeko. Dinamika sozial eta politiko berriak sortu behar ditugu, mugimendu izaeran aurrera egiteko. Administrazio eremuak aintzat hartuta, baina Euskal Herriaren burujabetza ipar dugula, nazio eraikuntzari bultzada eman behar diogu, horretarako beharrezkoa den ikuspegi integralarekin.

TOKIKO EGITURAKETAN JAUZIAK EGITEA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
EH Bildu berriaren eraikuntza: bigarren jauzia, dokumentuan planteatutakoa oinarri hartuta: Tokiko egituratze prozesuan bi helburu nagusi izendatu ziren: » EH Bildu herrietan antolatzea. » EH Bildu instituzioez haratago doan errealitate organizatibo gisa gorpuztea. Horretarako, EH Bilduren bizkarrezurra inplementatzea proposatu zen, besteak beste, funtzio hauek izanik: » Hainbat maila organizatibotako Batzarrek eta Mahai Politikoei osatua. » Arduradun politikoei, udalgintza arduradunek eta antolakuntza arduradunek osatua. » Plan politikoaren elaborazio, transmisio eta jarraipenerako kanala. » Ekintza politiko soziala inplementatzeko kanala, ordura arte martxan zegoen kanal politiko instituzionala osatzeko. Azkenik, EH Bilduk herrietan zer egin behar duen edo zein misio duen ere zehaztu zen: 1. Plan politikoaren transmisioa 2. Plangintza nazionalari loturiko zereginak 3. Bitartekaritza jendarteari eta eragileei begira 4. Udalgintza herrigilea Esparru honi dagokionez, EH Bildu inplementatu eta egonkortzea zen kongresualdiko helburua. Horretarako, funtzioen arabera antolatu zen, eta mapa organizatiboa hedatu.	Azken bost urteotako EH Bilduren egituratze prozesua handia izan da, Euskal Herrian zehar tokiko egiturak abian jarri eta eraginkortzen aritu delako.	Asko aurreratu den arren, gaur gaurkoz, hobetzen jarraitu behar dugu eta hauek dira hurrengo erronkak: » EH Bildu antolatuta ez dagoen herrietara zabaltzea » EH Bilduren gorputza handitzen jarraitzea, erakundeetatik harago antolaketa izan dezan. EH Bilduren bizkarrezurraren inplementazioan sakondu behar da. Kongresualdi honetan, tokiko egitura funtzionalagoa eta eraginkorragoa izan dadin lortzea da erronka, eta gure herrietako behar politiko eta teknikoei erantzuteko gaitasuna izatea. Horretarako, ezin ditugu alde batera utzi EH Bildu oraindik antolatu gabe dagoen herriak eta, batez ere, hazteko aukera nabarmenak ditugun eremuak. Azkenik, EH Bilduk herri batean zer egin behar duen edo zein misio duen zehazten zen puntuei dagokienez, asko aurreratu dugu. Udal politiketan Udalgintza Herrigilearen inplementazioa lortu arren, Herriko Plan Estrategikoetan sakondu behar dugu.

JARDUN POLITIKO INSTITUZIONAL ETA SOZIALA LANTZEA

Garaian hartutako erabakiak

EH Bilduren ekimen politikoak dimentsio instituzionala eta soziala ditu. Mobilizazioak egitea ez da helburu bat bere horretan; aitzitik, ekintza soziala gure ekimen politikoaren dimentsioetako bat da. EH Bilduren beste indargune bat da ez garela indar politiko konbentzional bat, mugimendua baizik, sakoneko aldaketak eragin nahi dituen eta borroka kulturala egiten duen mugimendua.

Eraldaketa sozialak eta nazio eraikuntzak sektore sozial askoren aktibazioa behar dute, eta horrek uhinen antzera zabaltzeko gai den mugimendua eskatzen du. Hori ez da politika instituzionalarekin eta presentzia mediatikoarekin soilik egiten, are gutxiago demokrazia liberalaren krisialdiko garai honetan.

Aurreratutakoa

Jarduera instituzionaletik harago, duela hainbat urte masa mobilizazioaren alde egindako hautua egonkortzea lortu dugula esan dezakegu. Udazkeneko mobilizazioa eta Aberri Eguna arrakastatsuak izan dira, eta komunitate sentimendua indartu eta aldarrikapenerako ilusioa berpiztu dute.

Nazio mailako deialdiak lantzeaz gain, Bildu Egunak antolatzeari edo tokiko plangintzetan dinamika instituzionala eta soziala uztartzeari eman zaio lehen-tasuna.

Hutsuneak/egokitzekoak/indartzekoak

Oraindik orain, nazio mailako dimentsioa du nagusiki. Tokiko plangintzetan ere lehen-tasuna eman zaion arren, inflexio puntu nazionalak dira dinamika sozialaren ardatz. Aurrera begira, EH Bilduren funtzioetan sakondu behar da, dinamizazio politiko eta sozialean arreta jarrita.

2. EH Bilduren funtzioak

ILDO POLITIKOA JORRATU

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
EH Bilduk Euskal Herrirako Proposamen politiko orokorrak eskaini behar ditu. Era berean, koiuntura politikoari behar bezala erantzun behar dio, eta kanpaina eta dinamika politiko zehatzak garatu, mobilizazioak barne.	Ildo politikoa urteroko Plan Politikoen bitartez garatu da. Plan Politiko horietan lehentasunezko lau ardatz landu dira: 1. Jauzi Politikoa. 2. Arnasberritze nazionala. 3. Bakegintza eta elkarbizitza. 4. Ezkerreko subiranismoa. Hegoaldeko Mahai Politikoak proposatu ditu Plan Politikoak, eta iraileko Konferentzietan onartu dira. Garrantzia eman zaio ildo politikoak eta uneko irakurketa politikoak EH Bilduren komunitatearekin konpartitzeari, solasaldien eta abarren bitartez. Mobilizazio propioak egin dira: azaroan mobilizazio nazionala eta udaberrian Aberri Eguna.	Plan politikoaren jarraipena eta uneko irakurketa politikoak ikasturte osoan egin behar dira, modu iraunkorrean. EH Bilduren komunitateak EH Bilduren mobilizazio dinamiketan parte hartzeko planak garatu behar dira. Nazio osoko ikuspegiarekin lan egiteko planak eta bitartekoak jarri behar dira.

PROGRAMA POLITIKOA JORRATU

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzekoak/indartzekoak
EH 2030, Merezi Duzun Herria Bizitza duina izateko euskarri publikoak eskainiko dituen eta ziurtasuna emango duen herri egitasmo bat mahaigaineratzeko asmoz, “EH 2030, Merezi Duzun Herria” proposamena sortu dugu. Ekimen politiko horrek ezkerreko subiranismoaren proposamena ontzeaz haragoko irismena izan nahi du: EH Bilduk, nazio elkarrizketaren bidez, euskal inteligentzia aktibatu eta saretu asmo du, datozen erronka sozial kolosalei herri gisa erantzun baikorra eman ahal izateko baldintzak sortze aldera. Halaber, ezkerreko subiranismoaren proiektu politiko nazio osoan gauzatzeko EH Bairekin dugun akordio estrategikoa edukiz bete eta garatzea falta zaigu. Instituzioen eta herri bulkadaren arteko sinbiosia Hamarraldi honetan egikaritu beharreko politika publikoen mapa: zaintza sistema publiko komunitarioa, trantsizio ekologikoa egiteko tresnak eta politikak, lan harremanen esparru propioa artikulatzeko tresnak, lana eta aberastasuna banatzeko politikak, hizkuntza politika berria, pentsio sistema propioa, industria politika aktiboa, etxebizitza eskubidea eskubide subjektibo gisa egikaritzen duten lege propioak, hezkuntza sistema burujabetzarako trantsizioko legeak eta abar. Sinbiosi horretarako EH Bilduren instituziogintzak gobernantza eredu kooperatiboa izan behar du, jendearen bizi baldintza materialak hobetzeko eraginkorra eta segurtasun emalea izateaz batera.	EH 2030, Merezi duzun herria proposamena oso testuinguru zehatzean sortu zen, besteak beste, Covid 19, Ukrainako gerra... Ziurtasunak emateko beharrean oinarritzen zen, egoera nahasia eta ziurtasunik gabea zelako. » Programa politikoak Euskal Ereduarekin egin zuen jauzi kualitatiboa, aurretik horren hazi diren proposamenak bazeuden arren (Ongizate Hitzarmena, Gerra ekonomia...); harrezkero egingako proposamen programatikoei (trantsizio energetikorako estrategia, hezkuntza proposamena,...) Euskal Eredua dute oinarri, eta koherentzia politikoa ematen diote, herri honek dituen arazoak identifikatu eta erantzunak aurkituta. » Etengabekoa izan da herri egitasmoak aurkeztu eta hitzarmenak bilatzeko ahalegina, herri honek dituen arazoei erantzun bateratua ematearren. » Bide honetan, azpimarratzeko elementua da espero ez gaituzten esparruetan eztabaida eta proposamenak egin eta dinamizatu izana ere. Horrek solbentzia eta sinesgarritasuna eman digu. » Konfort eremutik atera eta espero ez gaituzten esparruetan eztabaida eta proposamenak egin eta dinamizatu izana ere. Horrek fidagarritasuna eta sinesgarritasuna ekarri dizkigu. » Ildo programatikotik, lortu da jendearen beharrei erantzuteko eta irtenbiderako erreferentetza gu irudikatzea. » Kongresualdi honetan EH Bairekin dugun harremana indartu da.	» Herri egitasmo bat aurkeztea proposatzen zen eta bide horretatik jarraitu behar dugu. » Proposamen asko gauzatu diren arren, eztabaida askori heldu behar diegu oraindik: segurtasuna, trantsizio energetikoa... » EH Bairekiko hartu-emanean, azken urtean urrats positiboak egin dira. Instituzioen eta herri bulkadaren arteko sinbiosia » Hainbat politika publiko lantzeko ditugu: Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa, Euskal Pentsioen Sistema... » Burujabetzaren ildoan aurrerapausoak egin behar dira. Kaleko pultsua galdu da. Udalgintza herrigilea » Zonalde urbanoetan ez dugu behar beste aurreratu. » Hautetsien formazioan eta koadro eskolan egiteko urratsak ditugu. » Ziklo municipalista osoa irudikatu eta antolatu beharra dago jauzia materializatzeko. » Mugimendu municipalistaren horizontalitatea artikulatzea falta zaigu » Udalbiltzak nazio egitasmo eraldatzailerean (Geuretik Sortuak, Euskara, energia komunitateen sarea) urrats sendoagoak egitea beharrezkoa da.

PROGRAMA POLITIKOA JORRATU

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
Udalgintza herrigilea: EH Bilduk bere politikagintzaren dimentsio eraldatzaileena esperimentatu behar du udalgintza herrigilearen bidez. Izan ere, tokiko eskalak administrazioaren eta komunitatearen arteko hibridazioa esperimentatzeko aukera eskaintzen du, arazo eta erronka komunei erantzuteko gaitasun kolektiboa lantzea, kohesio sozialean aurrera egiteko ereduak sortzea. Udalgintza da ezkerreko subiranismoak hiriguneetan egin beharreko jauziaren gako nagusietako bat. Euskal hiriguneak proiektu subiranistaren motor bilakatu behar ditugu. Horregatik, eta ekarpen kualitatiboa egin dezakeelako Euskal Herriaren behetik gorako eraikuntzan, udalgintzari dagokion irismen estrategikoa eman behar dio EH Bilduk ondoko lau urteetan. Udalgintza herrigilearen dokumentuan arkitektura nazional bat proposatzen da, zeinaren pieza funtsezkoena udal herrigileen konfederazioa den.	Instituzioen eta herri bulkadaren arteko sinbiosia » Erronka sozialei erantzun eta egoeran eragiteko gaitasuna erakutsi da. » Legegintzaldi honetan bi aldarrikapen nagusitu direla esan genezake: pentsioak eta mugimendu feminista. » Politika publikoen mapari dagokionez bilakaera desorekatua izan den arren, positiboa da oso. » Trantsizio ekologikoan, EAEko legean eragin eta oinarrizkoak ziren kontzeptuak sartzea lortu dugu. » Zaintza Sistema Komunitarioaren eztabaida sozializatzea lortu da. » Gobernantzari dagokionez, udalgintzatik, pandemian beste eredu bat erakutsi genuen, gauzak beste modu batera egin zitezkeela. Udalgintza herrigilea » Pandemiaz geroztik, udalgintza herrigilearen filosofia barneratzeko garapenean urrats esanguratsuak egin dira. » Gure indarra herrietan dagoela esaten genuen, jauzi kualitatiboa da hori. » Konferentzia Munizipalisten bitartez, errelato bat sortzea lortu da. » Udalaz gaingiko tokiko egiturak integratu ditugu logika honetan. » UEMArekin harreman dinamika eta koordinazioa ezarri ditugu.	

HAUTESKUNDEAK LANDU		
Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
Hauteskunde arduraduna zehaztuko da kanpaina bakoitzean. Hegoaldeko Mahai Politikoak hautatuko du eta, lantaldearekin batera, hauteskunde deialdiak prestatzearekin zerikusia duen lan guztia sistematizatuko dute: azterketa demoskopiak, hautagai izan daitezkeen onarpen maila neurtzea, kanpainak prestatzea etab.	Hauteskunde ziklo luze bat aurreikusirik, lau zitak aurrera eramateko arkitektura planteatu da: behin-behineko hauteskunde arduraduna izendatu zen. Mahai Politikoko kidea. Hauteskunde zuzendaritza Mahai Politikoaren esku jarri eta hauteskunde taldea sortu zen. Hauteskunde taldea, ardura eta esparru ezberdinetako kideek osatu zuten. Bertan, hautagaiak izendatzeko prozedurak, kanpain diseinua, lan juridikoak, analisi demoskopikoen itzulpena eta bestelakoak egin dira. Talde iraunkorra izan da, oinarritzko osaketa mantendu du eta hauteskunde arabera inkorporazio espezifikoak planteatu dira.	Hauteskunde arkitekturari dagokionez, ondo funtzionatu badu ere, badaude olioztatzeko esparruak, bereziki lantaldea eta gainontzeko esparruekiko hartu emana.

EH BILDUKO KIDEON TREBAKUNTZA ETA ELIKADURA BERMATZEA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
EH Bilduko kideon elikadura: - EH Bilduko ekosistema segmentatu, funtzioak esleitu, eta horren arabera elikadura eta harremana planteatu: egitura, tokiko militanteak, bilki-deak... - Transmisio bideak arautu eta sistematizatu: Konferentzia Politikoa, Batzar Nagusiak, Herri Batzarrek... EH Bilduko kideon trebakuntza: - Formakuntza integrala egin: gaitasunei eta proiektu politikoari begira. - Guztioi edo talde zabalei zuzendutako formakuntza: bilki-deak, liberatuak, hautetsiak... - Esparru zehatz batean ari diren kideei zuzendutako formakuntza: zuzendaritza, sail, arlo edo lurralde zehatz bati zuzendutako formakuntza.	EH Bilduko kideon elikadura: » Tokiko militantziaren elikadura politikoari dagokionez, eskualde komiteak jarri dira martxan. » Egituran lanean dihardugun kideei dagokigunez, hausnarketa orokor edo sektorialak egiteko marko eta espazio zabalak jarri dira martxan. » Bilkideei edo komunitateari dagokienez, Mahai Politikoko eta hainbat esparrutako kideekin solasaldi irekiak egin dira eskualdez eskualde. Aldi berean, nazio, herrialde eta herri batzarren zirkuitua instituzionalizatu da. Tokiko batzarretan irakurketa politikoak garrantzi handiagoa hartu du. EH Bilduko kideon trebakuntzari dagokionez: » Eskola Herrigilea diseinatu da. » Tokian tokiko plangintza estrategikoak egiteko bitartekoak sortu eta formakuntza saioak antolatu dira. » Udal hauteskundeetan, Herri Proiektuak/Programak egiteko prozesuak prestatu dira, aurrez planteaturiko plangintza estrategikoen filosofia-ri jarraiki. » Hautetsientzako harrera plana prestatu da beste sail batzuekin batera. Harrera planean jasotako formazio plana ere garatu da. » Hautetsi, parlamentari eta liberatuei zuzendutako lerroa garatu da.	EH Bilduko kideon elikadura: » Tokiko egituretan lanean diharduten kide guztiengana heltzeko bideak eta bitartekoak sortu behar dira. Ziklo horretatik kanpo: » Egituran lanean dihardugun kideon kasuan, maiztasun iraunkor baten bidez ekoitzi behar da barne zirkularra eta hortik kanpoko hausnarketak eta erabakiak bizkortasunez landu. » Azkenik, esparru ezberdinetan lanean diharduten kideen kasuan, Hezkuntzan sortu dugu kanal bat hartu-eman espezifiko izateko. Beraz, bide honi jarraiki espazio ezberdinetako kideekin ere zabaldu beharko genuke. EH Bilduko kideon trebakuntza: » Militantzia eta tokiko ekipoei begirako formakuntza mugatua izan da. » Askotan eskarien arabera funtzionatu da. » Kostatzen da formazioa lehentasunezko zeregin gisa irudikatzea, askotan borondatezkoa izanik eta ez orokorra.

3. EH Bilduren egitura

BATZAR NAGUSIA (KONFERENTZIA POLITIKOA)

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
1. Batzar Nagusia EH Bilduren organo gorena da Biltzar batetik besterako aldian, eta Biltzarrean onartutako erabakiak betetzea bermatzen du. 2. Batzar Nagusia bi modalitatetan egin ahal izango da: » Modalitate unibertsala (ohikoa): bilkide guztiek hartuko dute parte, hitz egiteko eta botoa emateko aukera izanik. » Ordezkaritza bidezko modalitatea (salbuespenekoa): Tokiko Batzarretan berariaz izendatutako bilkide guztiak bilduko dira, hitz egiteko eta botoa emateko aukera izanik.	» Batzar Nagusiaren funtzioa eta maiztasuna instituzionalizatu eta sistematizatu da. » Zentzu horretan, hausnarketa eta eztabaida politikoan urratsak egin dira. Egoeraren azterketa, uneko hausnarketa politikoak edo bestelako proposamenak bertan landu dira. » Plan Politiko, programa, proposamen sektorial, araudi eta abarren erabakigunea izan da. Gehienetan aho batez edo babes handiarekin berretsi dira proposamen horiek. » Gure militanteei eta komunitateari begirako termometro nagusi bihurtu da. Konfiantza marko bat dela ere esan genezake. Batzarraren balorazioak gero eta hobeak izaten ari dira urtez urte. » Parte-hartzea sendotu da. Marko politikoetan parte hartzen dutenen komunitate leiala sortu da. » Batzarraren alde pribatu eta publikoaren arteko oreka lortu da. Edukien errepikapena ekidin eta indar erakustaldiak irudikatu dira. » Batzarrari dagozkion lanen banaketa eta egitekoak sistematizatuta eta ongi olioztatuta daude.	» Ez da delegatuen figura formalizatu. » Konferentzia Politikoa eta Batzar Nagusiaren arteko ezberdintasunak badauden arren, Konferentziaren izaeran sakontzeko beharra aipatzen da. » Horrelako marko zabal eta jendetsuek tramite hutsean eta formalismoan erortzeko arriskua izan ohi dute. Hori ekiditeko, ikuspegi kritiko eta politikoa lantzeko beharra egituraren etengabeko ardura da. » Parte hartzerako bide berriak urratu behar dira. Aurrelanketan eta egunean bertan hitzak banatzerako orduan, tokiko egiturek pisua izan dezaten, besteak beste. Askotan, perfil eta adin konkretu baten eta, bereziki gizonezkoen hitzak izan direlako nagusi.

HEGOALDEKO MAHAI POLITIKOA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
1. Hegoaldeko Mahai Politikoa EH Bilduren zuzendaritza politikoko organoa da. Haren kudeaketa arruntaz arduratzen da, Biltzarrean eta Batzar Nagusian ezarritako ildo politikoaren eta jarraibideen arabera.	Hegoaldeko Mahai Politikoa bi astez behin elkartu da eta quoruma bilkura guztietan bermatu da.	Mahaian hartutako erabakiak konpartitzeko bideak oloztatu behar dira.
2. Hona hemen Hegoaldeko Mahai Politikoen osaera: » Koordinatzaile nagusia. » Zuzendari nagusia. » ...	Mahaiaren osaera errespetatu da eta kide guztiek parte hartu dute eztabaidetan. Erabaki gehienak aho batez hartu badira ere, noizbait bozketa egin da erabakia hartu ahal izateko.	Bilkuretan interbentzioen denbora kontrolatzeko sistema ezarri beharko litzateke eta ongi dinamizatu kide gehien parte hartzea bermatzeko asmoz.
3. Hegoaldeko Mahai Politikoa, aztertu beharreko gaietatik edota gaiaren inguruan ekarpenak egiteko gaitasunetatik Mahaiak interesgarritzat hartzen dituen pertsonen parte hartu ahal izango dute, botoa emateko eskubiderik gabe.	Mahaian ez dauden kideen ekarpenak jaso dira eta bilkuretan parte hartu dute, azterketa demoskopikoak azaltzeko, esaterako.	Idazkaritza aktibatu behar da, oso gutxitan elkartu baita.
4. Hegoaldeko Mahai Politikoen barruan, Hegoaldeko Mahai Politikoen Idazkaritza eratuko da. Organo horrek bideratu eta betearaziko ditu Hegoaldeko Mahai Politikoen eguneroko kudeaketari buruz hartutako erabakiak.		

PROGRAMA (INSTITUZIO NAGUSIAK, UDALGINTZA ETA IDAZKARITZAK)¹

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
Gorago, Programa Politikoa jorratu atalean, programari dagozkion proposamen, inizatiba eta lan-ketetan jarri dugu arreta. Oraingoan, esparruaren antolaketari eta esku-hartzeari helduko diogu eta, bereziki, udalgintzaren arloari eta instituzionalari.	Idazkaritzak: » Programa estrategikoaren ideia. Horren garapena arlo bakoitzean. » Ikuspegi estrategikoa gailendu da kongresualdi honetan. Udalgintza: » Euskal Ereduaren planteamenduari jarraiki, ziklo municipalista berrirako eginiko proposamenak koherentzia programatikoa eman dio ildo politikoari. » Proposamen hori oinarri, herriek legegintzaldia-ri misio bat emateko apustua egin dugu. Instituzionala: » Instituzioen arteko hartu-eman eta logika indartu da, bide-orri edo oinarri komunekin jardunda. » Hauteskunde ziklo luzea izan dugu tarte honetan. Hauteskundeak, inkorporazio berriak, aldaketak... zikloak itxi eta berriak abiatzeko prozeduran daramatzagu bi urte, instituzioz instituzio lehentasunak finkatu, funtzioak argitu eta egiturarekiko hartu-eman diseinatu. » Instituzioen arteko koordinazioa indartu da; dinamika eta irakurketak partekatu dira, eta maila bakoitzeko instituzioen arteko harremana indartu da.	Idazkaritzak: » Instituzionalean, proposamen programatikoei eta eguneroko beharrei erantzuteko oinarri komuna behar da. » Proposamen politikoak nola exekutatu eta itzuli zehaztu behar da. Hau da, proposamen batek ze deribada sozial, instituzional eta politiko duen aztertu eta elkarlanean jardun. Instituzionala: » Marko instituzionalak koordinatzeko bideak erraztu behar dira.

1. Ikus Arlokako Idazkaritzak.

ANTOLAKETA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
Misioa: Ildo politikoa garatzeko militanteen ki-degoa antolatzea, aktibatzea eta eraginkortzea da gure misioa. Kongresualdiko lehentasunezko helburu orokorrak: » Tokiko egiturak eratzea: saretzea, egonkortzea eta hedatzea. » EH Bilduren dinamika politiko eta soziala indartzea, oro har eta tokian toki. » Militante bakoitzaren (eta bereziki, hautesien) funtzioak eta lana proiektu nazionalarekiko koherentzia kokatzea. » Egituraren funtzionamendua eraginkorragoa izatea. » Hauteskunde zikloan Barne Antolaketari esleitzen zaizkion lanak egitea.	Helburu orokorrak kontuan izanik: » Tokiko egiturak eratzea: kongresualdi honetan, antolamendua errotu da; inplantazioa hedatu eta kuantitatiboki gure egitura biderkatu da. Tokiko arduradunak izendatzeko eta mahai politikoak eratzeak hautua egin zen, eta horiek egonkortzea eta hedatzea lortu da. » Elikadura politikoari eman zaio lehentasuna kongresualdiko azken urtean. » Dinamika politiko soziala indartzea: aurrez aipaturiko inplementazio organizatiboa eta batera-jotze nazionalak lagungarri izan dira gorputz instituzionalak ez ezik, dinamika sozialari erantzuteko gorputz politiko soziala ere artikulatzeko. Hasieran naziokoak ziren dinamikak gaitzitu eta tokiko plangintzetan jaso dira. » Egituraren funtzionamendua eraginkorragoa izatea. Aldi honetan, araudi, protokolo, funtzionamendu proposamen eta sistematizaziorako urratsak egiteko ahalegina egin da, besteak beste, marko eta guneen funtzioak zehaztu dira, ardurak deskribatu, proiektukako funtzionamenduan aurrera egin... » Hauteskunde zikloan Barne Antolaketari esleitzen zaizkion lanak egitea: arlo juridikoan, formazioan, intendentzian, ikuspegi feminista txertatzen, arlo ekonomikoan...	» Tokiko egiturak eratzea: bilakaera asimetrikoa izan du tokiko jauzi organizatiboak. Herrialde eta zonalde zehatzetan ez du izan pareko garapena. » Eskualde komiteetatik harago, elikadura politikorako bestelako bitartekoak jarri behar dira martxan. » Dinamika politiko soziala indartu: tokian toki, dinamika instituzionala eta soziala uztartu behar dira. Alderdi konbentzionaletatik haragoko marka edo estilo propioa garatu behar da. Tokiko plangintzetan forma eman behar zaio. » Militante bakoitzaren funtzioak eta lanak proiektu nazionalaren baitan kokatu: hautetsien parte hartzean sakondu beharra dago. » Egituraren funtzionamendua eraginkorragoa izatea. Urratsak egin badira ere, hastapenetan gaudela esan genezake. » Hauteskunde zikloan Barne Antolaketari esleitzen zaizkio lanak egin. Lau hauteskunde zita izan ditugu azken bi urteetan. Horietako batzuetan, antolaketako kideok hainbat esparrutan lanean aritu izan gara.

KOMUNIKAZIOA

Garaian hartutako erabakiak

2019an komunikazio zuzendaritzarako estrategia oinarria aurkeztu zen eta plan horren baitako inplementazio lanak bideratu dira nagusiki. Antolaketa eta funtzionamendu eremuan, antolakunde osoa aintzat hartu eta, zentralizazio hutsaren orde, elkarlana oinarri duen funtzionamendua bideratu nahi izan da. Komunikazio taldearen bilakaera ere, oro har, antolakundearen barne funtzionamenduan egin diren hobekuntza iraunkorren logikan txertatu da.

Oinarriak ezarri dira profesionalizazio eta sistematizazio logikan. Komunikazio Plana osatzearekin batera, plana inplementatzeko prozesu egokia aurkitzeko lanetan zentratu da.

Logika horren baitan, egunerokotasunari loturiko beharrianak eta epe ertain-luzeko lanak bereizi eta garatzeak pisu handia izan du, hala nola komunikazioko talde egonkor bat lortzea, profesionalizazioa eta sistematizazioa oinarri izango lukeena.

Aurreratutakoa

Oinarrizko plangintza bat izateak oinarrizko bide-orri bat eman digu, baina pandemiaren ondorioak eta etengabeko hauteskunde zikloak izan dira azken lau urteon bereizgarri. Zaharkituta geratu izanaren sententzia ere sumatu da, hein handi batean, komunikazio politikoaren egungo egoera eta garapenean jauziak gertatu direlako, hala nola informazioaren eta komunikazioaren aldetik eragiteko bitartekoetan izan diren aldaketak.

EH Bilduren jardun eta dinamika politikoak EH Bildu marka indartu badu ere, iruditeriaren eremua berriaz landu da. Errelatoen garapenari eta diskursogintzari dagokionez, jardun politikoari ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatu da, eta hauteskunde zikloetako antolaketa ereduak ere horri erantzun nahi izan dio. Hauteskunde zikloz beteriko legegintzaldia izatea hainbat esparru eta eremu komunikatibo garatzeko eragozpen izan bada ere, hori bera aukera ezin hobe izan da EH Bilduk komunikazio esparruan duen gaitasuna ikusarazteko.

Sare sozialen erabilera asko areagotu da, baina edukien mamiaren eta jardun horren kalitatearen arteko oreka lortzeko urratsak izan dira garrantzitsuak. Era berean, sareek, oro har, marka saldu eta indartzeko balio izan dute.

Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak

Ikusgarritasun politikoak erantzukizun maila handiagoa dakar eta horrek argiki erakutsi du jauzi handiagoa egin beharrean gaudela. Horretarako baldintzak sortu behar dira antolaketari dagokionez, profesionalizaziorako pausu eraginkorrak eginda. Baina hori guztia azkartasun informatiboak eta komunikazioak egun eskatzen duten hausnarketarekin eta patxadarekin uztartu behar da.

Horrek, bederen, ekimen politiko eta instituzionalaren agenda politikoa zentralizatu izatea eskatzen du. Horrekin batera, modu sistematikoan jardungo duen argudiategien zirkuitu osoa antolatu behar da, baita mezuen eta errelatoen faktoria bat sortu ere.

Pausoak eman badira ere, herrialdeekin, udalerriekin eta alor instituzionaleko guneekin beharrezkoa den koordinazioan garapen eta sakontasun handiagoak behar dira, baliabide eta aukera guztien potentzialtasun erreala erdiesteko.

Branding-a egitea beharrezkoa da.

Demoskopia jardun komunikatibo politikorako garrantzitsua dela agerian geratu den moduan, ezinbestekoa zaigu horretan sakontzea eta azterketa demoskopikoek ematen dituzten datu guztiak eta informazio eskerga baliatzea.

KOMUNIKAZIOA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
	Modu berean, EH Bilduren ordezkaritza eta bozeramailletza lanei dagokienez, egonkortasun bat lortzen ahalegindu da. Bozeramailletza instituzionalak eta alderdi bozeramailletzak bereizteaz gain, herrialdeka eta hiriburuka ere beste horrenbeste lortzeko lanak egin dira.	

NAZIOARTEA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
Misioa: nazioarteko komunitateak Euskal Herria independentea aitortu dezala. Horretarako, beharrezkoa izango da Euskal Herriaren ezagutza lantzea eta prozesu independentista eta subiranista elikatzea. Lan lerroak: 1. Nazioarteko herri politika. 2. Harremanak eta diplomazia. 3. Estaturik gabeko herriak. 4. Gatazkaren ondorioen konponbidea. 5. Nazioarteko politika. Institutuzio nagusietako nazioarteko gaien gaineko kontrola izatea eta udal nagusietan ere erreferentzia izatea	1. Nazioarteko herri politika adostua garatzeko oinarriak jarriak daude. Diasporaren lanketari dagokionez, orain arte ez bezala, lehentasunezko ildo bat izan da. 2. Harremanen filosofia aldatu da. Nazioarteko taldeak harremanak izatetik, hauek zabaldu eta aktore berriak jokoan sartzea lortu da. Esparru honetan, lan diplomatikoa sistematizatzeko gai izan gara finkatutako helburuak betetz. 3. Estaturik gabeko herrietako alderdi politikoen arteko harremanak elikatu eta indartu ditugu. 4. Gatazkaren ondorioen esparruan, azken urteetan izandako harremanak elikatu eta bideratu ditugu fase eta helburu berrien inguruan aktiboak izateko. 5. Nazioarteko politika. Balantzea oso positiboa da. Nazioarteko taldea, erreferentia bihurtu da nazioarteko gaiei dagokienez. 2022ko ekainean, Europako The Left taldearen bilera ireki bat antolatu genuen Iruñean. Europa luze zabaleko ezkerreko alderdien arteko hausnarketa eta elkarrengandik ikasteko ariketa izanik.	1. Urte hauetan landutako ideiak martxan jartzeko baldintzak daude. Diasporan, belaunaldi berriekin hartu-eman zabaldu. 2. Filosofia berriaren aplikazioan aurrera egin beharko dugu eta harreman esparru berriak zabaldu. 3. Harreman hauen adierazpen publikoetan sakondu beharko dugu. 5. Kooperazio politiken definizioan sakondu behar dugu.

HERRIALDEETAKO MAHAI POLITIKOAK ETA BATZARRAK

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
Herrialdeko Batzarra 1. Herrialdeko Batzarra herrialdeko erabaki-organo gorena da, eta Herrialdeko Mahai Politikoa eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako eta Nafarroa Garaiko Parlamentuko taldeek haren agindua bete beharko dute, eta hari kontuak eman beharko dizkiote. 2. Dagokion herrialdeko bilkide guztiek osatzen dute. 3. Herrialdeko Batzarrak ez du aldizkakotasun finkorik izango, baina urtean bi aldiz bildu beharko du gutxienez, herrialdeko arduradun politikoak deituta.	Herrialdeko eskalari erreparatzen badiogu, herrialdeko egituren funtzioak hiru izan direla azpimarratu genezake: 1. Plan Politikoa herrialderatzea, eguneratzea, eta ikasturte bakoitzeko plangintza eta helburuak finkatzea. 2. Herrialdeko erronka nagusiak identifikatzea eta erantzun programatikoa ematea. Azken bi ikasturteetan hauteskundeak izan dira ardatz. 3. Herrialdeko eztabaida edo gai sektorialen aurrean EH Bilduren posizioa finkatzea. Herrialde Batzarretan landu eta adostu dira aurrez aipaturiko funtzioak. Horretarako, ikasturte hasieran Plana eta plangintza lantzeko batzarrak egin dira, ikasturte bukaeran balantzea egiteko, eta hirugarren bat ere egin izan da, bilakaera ikusteko eta jarraipena egiteko. Bi herrialde batzar eredu egin izan dira: » Ohikoa, bilkideei zuzendua eta erabakiak hartzeko funtzioa duena. » Delegatua, tokiko arduradun edo hautatuei zuzendua eta jarraipen edo hausnarketarako markoak izan direnak. Azkenik, herrialdeetatik tokiko militantziarekin dagoen harremana oloztatua dago. Aipaturiko markoez haratago, udalgintzatik eta eraketako aparatuetatik dago harreman iraunkorra.	Funtzio hauen garapenari dagokionez zenbait arazo identifikatu dira: » Ildo programatikoa indartu eta kohesionatzeko beharra. » Kasu batzuetan, egutegi nazionalak herrialdeko garapena baldintzatu du. » Herrialdeko batzarrei dagokienez, ikuspegi estrategiko sakona lantzeko eta eztabaida politikoa sustatzeko eragozpenak izan dira. Parte-hartzeari dagokionez, kuantitatiboki zabala izan ohi den arren, eremuka eta sektoreka begiratuz gero, desoreka handiak ikusten dira. Zenbait eskualdetan parte-hartzea sendotuta dago, eta beste zenbaitetan hutsuneak nabariak dira. Parte-hartze zabalena izan duten batzarrak herrialdeko gai edo erabakiei lotuta egon direnak izan dira, bereziki, Nafarroan. Azkenik, bi herrialde batzar eredu aipatu dira, eta bakoitzaren funtzioak eta helburuak zehaztu behar dira. Herrialdeko Mahai Politikoei dagokienez, bereziki hutsune edo indartzeak ageri dira: » Bereziki, kontraste, koordinazio eta informazioa trukatze markoak izan dira. » Gaiaren aurrelanketan hobetu eta eztabaida sustatzeko dinamika eta tresna berriak landu behar dira.

TOKIKO MAHAI POLITIKOAK ETA BATZARRAK

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
Tokiko Batzarra 1. Tokiko Batzarra tokiko erabaki-organo gorena da, eta Tokiko Mahai Politikoak eta udal-taldeak haren agindua bete beharko dute, eta hari kontuak eman beharko dizkiote. 2. Lurralde-eremu horretako Bilkide guztiek osatzen dute. 3. Tokiko Batzarrak ez du aldizkakotasun finkorik izango, baina urtean bi aldiz bildu beharko du gutxienez, tokiko arduradun politikoak deituta. Tokiko Mahai Politikoa 1. Tokiko Mahai Politikoa toki-mailako zuzendaritza politikoko organoa da. 2. Honako arduradun hauek osatuko dute gutxienez: » Tokiko arduradun politikoa. » Udal Taldeko arduraduna. Tokiko Mahai Politikoa osatuko da, lehentasunez, tokiko antolakuntzako arduradunarekin eta tokiko komunikazioko arduradunarekin, baita eratzen diren lantaldeetako arduradunekin ere. 3. Tokiko Mahai Politikoa berak erabakitzen duen aldizkakotasunarekin bilduko da, tokiko arduradun politikoak deituta.	Tokiko Batzarra Azken urte hauetan asko handitu da Tokiko Batzarren kopurua. Hori lotuta dago egin den egituraketa jauziarekin, herrietako lanketa politiko instituzionalaren hazkundearekin, baita instituzionalizatu dugun transmisio politikoaren zikloarekin ere. Tokiko Mahai Politikoa Azken kongresutik hona garatu dugun Tokiko Egituratzeko Prozesuaren ondorioz, asko eta asko izan dira sortu eta egituratu diren Tokiko Mahai Politikoak, egituraketa jauziaren osagai garrantzitsu bilakatu dira, eta gure hazkunde politiko eta organizatiboaren beste adibide bat dira.	Askotan Tokiko Batzarrak transmisiorako markoak dira. Gutxitan lortu dugu batzarrak izatea herriko marko gorena. Horretan sakondu beharko genuke, Tokiko Batzarrak marko erabakitzailerak ez ezik, tresna politiko ere izan daitezen, bilkideak ahalduztzera begira. Modu berean, formatuan eta deialdiak egiteko moduan sakondu beharko genuke, herrietako bilkideak eta oinarri sozial zabalagoa erakartzeko. Tokiko Mahai politikoei begira, sakondu beharko genuke horiei ahalmen politiko eta tekniko handiagoa emateko, funtzionalagoak eta eraginkorragoak izan daitezen. Marko horrek izan beharko lukeen ahalduztze politikoa landu beharko genuke, duen ahalmen politiko osoa balia dezan eta ez dadin mugatu egunerokotasunari edo ildo politiko nazionalari erantzuteko marko izatera. Bestetik, oraindik eratu gabe ditugun Tokiko Mahai politikoak eratzeko baldintzak sortzen jarraitu behar da.

4. Beste esparru eta antolaketa bitarteko batzuk

ARLOKAKO IDAZKARITZAK

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
1. Arlokako Idazkaritzak eremu sektorial bakoitzeko eragile sozial, ekonomiko eta kulturekin etengabe hitz egiteko guneak dira, edukiak sortzeko aproposak, Programa Politikoa elikatzeko baliagarri izango direnak. Gero, programa horretatik aterako dira hauteskunde programak eta EH Bilduren ekintza politiko eta instituzionala. 2. Arlokako Idazkaritza bakoitzak idazkari eta/edo arduradun bat izango du, eta arduradun hori arduratuko da dagokion Arloko Idazkaritza osatzen duten lantalde eta azpitalde guztien dinamizazio eta koordinazioaz, baita EH Bilduren bozeramaile lanak egiteaz ere, dagokion eremu sektorialean. 3. Arlokako Idazkaritza bakoitzak laneko azpitaldeak izango ditu, proposamen sektorialak guztiak egokitzeaz arduratzeko. 4. Idazkaritzen Koordinazioa programako zuzendararen ardura izango da, eta elkarlan estuan jardungo du Politika Instituzionaleko arduradunarekin eta Udalgintzako arduradunarekin zein Antolakuntzako Zuzendaritzarekin. 5. Batzar Nagusiak erabaki dezake egokitzeak jotzen dituen Arlokako Idazkaritza guztiak sortzea. 6. Idazkaritza Feminista zeharkakoa izango da, gainerako idazkaritzak, Programa politikoa eta antolakunde osoa balio eta praxi feministez blaitzeko.	Arlokako idazkaritzen errealitateak askotarikoak izan dira. Kasu batzuetan, funtzionamendu iraunkorra izan dute: idazkaritza feministak, hezkuntzakoak edo osasun idazkaritzak. Beste kasu batzuetan, hauteskunde programetarako edo lege proposamenak elikatzeko aktibatu dira idazkaritzak. Horrenbestez, eragileekin izan den hartu-eman ere askotarikoa izan da: zenbait kasutan interlokuzio zuzena egon da eta, beste batzuetan, ordea, prozesu zehatzekin lotuta. Idazkaritza bakoitzak erreferentziazko pertsona bat izan du, normalean legebiltzarkidea izan dena. Hor-taz, dagokion eremuari loturiko bozeramaileta lana egin du. Azpitaldeen funtzionamendua ez da orokortua izan, baina proposamenak garatu eta instituzio bakoitzera egokitu dira, instituzioen arteko ezagutza partekatua eta koherentzia lortze aldera. Lan horrek norabide bikoitza izan du: eskaerei erantzun zaie eta eskaintzak egin dira. Antolakunde osoa praxi feministaz blaitzeko tresna Plan Feminista izan da, baina horrek, bereziki, bar-ne mailako etxerako lanak ezartzen dizkigu. Kanpo politikari dagokionez, erabakigune ofizialetan egon beharra azpimarratzen dugu beste behin ere.	Idazkaritzaren erreferentzialtasunari dagokionez, kanpo mailako proiektzioa desorekatua izan da. Kasu batzuetan eragile eta instituzio ezberdinekin izandako hartu emana ez da egoki landu. Zeharlerroak diren idazkaritzen kasuan, gazte eta idazkaritza feministaren kasuan, espazio zabalei zeharlerrotasun ardura ezarri eta espazioak "ofizializatzeko" beharra dago. Oro har, idazkaritzen egitekoak, egiturarekiko eta euren arteko harremanak berraztertu eta birdiseinatu behar dira.

ESTRATEGIA BATZORDEA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzekoak/indartzekoak
Hegoaldeko Mahai Politikoak izendatutako lantaldea, koordinatzaile nagusiaren inguruan eratua, eta azken horrek bere gain hartuko du koiuntura-analisiak eta hausnarketa eta ekimen estrategikoak lantzeko eta mahaiaren eskura jartzeko ardura.	EH Bildu epe luzera begira lan egiten hasi da ikuspegi politikoan zein organizatiboan.	Lantaldeari dagokionez, tarteka elkartu izan da baina egonkortasunik gabe. Arnas luzeko hausnarketari tarte gehiago eskaintzeko moduaren inguruan gogoeta egin behar da.

EKINTZA POLITIKO, SOZIAL ETA INSTITUZIONALEKO BATZORDEA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzekoak/indartzekoak
Hegoaldeko Mahai Politikoak izendatutako lantaldea, Programako Zuzendariaren inguruan eratua, eta azken horrek bere gain hartuko du ekintza politiko, sozial, eta instituzionaleko proposamenak lantzeko eta mahaiaren eskura jartzeko ardura.	Batzordetik proposamen integral eta zabalak proposatu dira, Mahai Politikoak bere egin eta idazkaritzatik kudeatu direnak; besteak beste, Ongizate Hitzarmenaren, Hezkuntzaren edo trantsizio energetikoaren lanketak.	Hauteskunde ziklo berria abiatu eta funtzionamendua honi egokitzearekin batera, egokitu zen batzordea. Kasu askotan, idazkaritzako kideek osatzen zuten EPSI batzordea, eta horrek nahasmena sortu izan du funtzioetan.

PRESTAKUNTZAKO ARDURADUNA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzekoak/indartzekoak
Hegoaldeko Mahai Politikoak hautatuko du, eta EH Bildu kide guztien —kargudun publiko guztiak barne noski— prestakuntza definitu eta dinamizatzear arduratuko da.	» Prestakuntza arduraduna izendatu da, funtzio zehatzak definituak ditu, baita formakuntza plana ere. » Formakuntza arduraduna Barne Antolaketako ekipoa txertatu da. Bestelako markoekin lotura zuzena du: Plan Feminista, Udalgintza, Eraketa... » Formakuntza Mahaia osatu da egunerokotasuneko kudeaketan aurreratzeko.	» Barne Antolaketako sailean agertu izan diren beharren zein lehentasunen arabera egin dira prestakuntza egitasmoak eta proposamenak. Askotan, zaila izan da egiturak izan zitzakeen behar orokorreari erantzutea. » Plana garatua egonik ere, misio globalari erantzuteko beharra somatzen da. Iniziatiba politikoa eta begirada estrategikoa irabazi behar dira. » Beste markoekin harremana sistematizatu behar da.

PLAN FEMINISTAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO BARNE PROTOKOLOAREN JARRAIPEN-BATZORDEA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
Hegoaldeko Mahai Politikoak izendatutako lantaldea, Antolakuntzako Zuzendariaren mendekoa, eta Plan Feministaren (EH Bilduren trantsizio feministarako plan estrategiko eta integrala) eta Indarkeria matxistaren aurkako Barne Protokoloaren inplementazio eta jarraipenaz arduratuko dena, EH Bilduko gainerako arloekiko lankidetzaren eta koordinazio estuan.	Egiteko moduak eta pertsonak zaintzea: » Harrera eta agur planak osatu eta abiarazi dira. » Liberatu guztiekin bilera kolektiboak egin dira. Partaidetza parekidean oinarritutako erakundea: » Bilerak gidatzeko zein batzarrak antolatzeko eta bideratzeko bitartekoak sortu dira. » Kide liberatuen lan baldintzen hitzarmena sortu da, berdintasunaren eta bateragarritasunaren/kontziliazioaren ikuspegia aintzat hartuta. Emakumeen partaidetza eta ahalduntzea sustatzea: » Emakumeen Gunea hiru urtetan antolatu da eta Herrialde mailakoak ere egin dira. » Idazkaritza Feminista zabalak bere dinamika propioa sortu eta egonkortu du. Indarkeria matxistarik gabeko erakundea izatea: » Protokoloa sortu eta onartu da. Hau lantzeko saioak egin dira. Liberatu zein komunitatearekin. » Irekitako kasuen kudeaketari jarraipena egin zaio. » Protokoloak kudeatzeko gune espezifikoak sortu dira, kasuan kasu. Hasiera batean, gune horiek Plan Feministaren jarraipenerako taldearekin harremana izan behar zutela esaten bagenuen ere, kasu bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta, herrialdeekin eta egiturako kideekin osatutako talde tekniko eta prestatuak sortu ditugu.	Plana mundura ekarri beharra dago; sinplifikatu eta ekin-tza konkretu eta argiak zehaztu behar dira. Planaren sinpletze eta zehaztapen horretan politika feministen eremua, hau da, kanpora begirakoa planetik ateratzea egoki ikusten da. Planaren jarraipenean eta sistematizazioan hobekuntzak behar dira. Planaren inplementaziorako beharrezkoak diren antolaketak eta organigrama sinplifikatu eta zehaztu behar dira. Barne protokoloa: » Inplementazio gidarekin lotutako berrikuntzak: * Protokoloaren filosofiaren eta egondako esperientzien inguruko lanketa (ezagutza bermatu, desestigmatizazioa...). * Prozesuaren logika landu behar da: protokoloak itxi ondoren, zer? * Kasuetan inplikaturik dauden zaintza bermatu behar da. » Kanpora begirako dokumentuarekin lotutako berrikuntzak: * Informazioaren kudeaketaren inguruko hausnarketarako. * Organigrama sinplifikatu eta funtzioak argitu behar dira.

PLAN FEMINISTAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO BARNE PROTOKOLOAREN JARRAIPEN-BATZORDEA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
	Ikuspegi feminista hauteskunde zikloetara eramatea: » Hautetsiekin egindako bananako balantze errondetan, zaintza ikuspegia kontuan hartzeko irizpideak helarazi zitzaizkien. » Hautetsi berriei zuzendutako harrera plana eta kargua utziko dutenei zuzendutako agur planaren proposamena egin da, eta EAEko hauteskundeetan burutu da. » Herri programa eta balantze ariketen proposamenen bitarteko eta irizpideak eskaini dira. » Komunikazio gida landu eta zabaldu da.	» Funtzionatzeko espazioen sinpletze eta banantzerak jo behar da, baita espezializaziora ere. Ohartu garen moduan, protokoloek eta Plan Feministaren jarraipenak espazio ezberdinak izan behar dituzte (bieten egon beharreko kide batzuk errepikatu litezkeen arren) eta, bereziki, protokoloek dagokienez, kasu batzuen pisuagatik, prozesuen jarraipen eta dinamizazioan adituak izan litezkeen kideen beharra izan dugu. Hori sistematizatu behar da aurrera begira.

EMAKUMEENTZAKO GUNEA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
Emakumezko Bilkideen topaketa, hausnarketa, eztabaida eta parte-hartzerako gunea, emakumeen ahalduntzea sustatzeko premisa feministetatik abiatuta.	Gune hau bildu izan dugun aldiro, balorazio oso positiboak jaso ditugu parte hartu duten kideen aldetik. Zaintzaz edota gizarte politikez eztabaidatzeko baliatu dugu, baita sarea egiteko ere. Hala ere, momentuaren arabera heldu diogu antolakuntzari.	Gune honek urtero izan beharko lukeen kalendarizazioa aldeztetik lantzea, eta lau urteko perspektiba batekin une bakoitzean egingo duguna zehaztea dagokigu.
Emakume bilkideen kasuan, emakumeen ahalduntzea sustatu eta kalitateko jardunbide politikoa bermatuko duen esparru propio bat izateko eskubidea.		EH Bilduko emakumeek jakin behar dute zertarako balio duen, eta bertan lantzen denak nolako eragina izango duen gure jardunean. Lau urteko planifikazioa egin behar dugu.

GAZTEENTZAKO GUNEA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
Bilkide gazteen topaketa, hausnarketa, eztabaida eta parte-hartzerako gunea, haien ahalduntzea sustatzeko sortua. Bilkideen eskubideak: 30 urtetik beherako bilkideen kasuan, haien ahalduntzea sustatu eta kalitateko jardunbide politikoa bermatuko duen esparru propio bat izateko eskubidea. Gazteriak aldaketa politiko eta sozialaren protagonista eta eragile izan behar du, Euskal Herriaren oraina eta etorkizuna den heinean. Ildo horretan, konpromisoa hartzen dugu euskal gazteek gaur egun eremu guztietan bizi duten salbuespen egoerari aurre egin eta irtenbidea emango dioten neurriak bultzatzeko eta gazteen antolaketa eta ahalduntzea sustatzeko, gazteek izan behar baitute, eta gazteek baino ez, hain beharrezkoak diren aldaketen protagonistak.	» Gazte idazkaritza osatu da. » Gazte batzarrak egin dira. » Gazte aliatuen sarea osatu dugu: egitura mailan harremanak egin ditugu, zeinak deialdiak egin eta ideiak partekatu ditugunean erantzun duen. Hauteskundearen testuinguruan, materiala sortu da (gazte programa eta bestelako materiala). » Plangintza nazionalako mugarrietan, gazte ekarpena egin da: mobilizazioetarako deialdiak, hauteskundeetan agerraldiak... » Parlamentuko jardunean gazteen inguruko ekimen asko egin dira. » Sare sozialetan oihartzuna izan da.	» Ez da lortu gazte marko ezberdinak (gazte idazkaritza bera, batzarra...) sistematizatzeko eta jarraipena bermatzeko. » Gazte idazkaritzaren plangintza jarraitzea zaila izan da. » Produkzio politikoari begira, beste hainbat esparrutan lan asko egin da, baina ez da produkzio hori ordenatu ezta antolatu ere egin.

TALDE MUNIZIPALISTA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
Tokiko lantaldea, zinegotziez eta tokiko jendarte-dinamika eta herri-mugimendu guztietan murgildutako Bilkideez osatua, eta udalaren esku-hartze instituzionala dinamizatu eta inplementatzeko arduraduna. Toki Programa dinamizatzeari ere arduratuko da, parte-hartzean oinarritutako prozesuen bitartez, eta Toki Batzarrari helaraziko dizkio bai programa hori, bai haren garapen eta inplementazioarekin lotutako proposamen guztiak, onar ditzan.	» Koordinakundearen funtzioa udalgintza apartuak eta Konferentzia Munizipalistak bete dute	» Koordinakundea eremu formalera mugatzen den erabaki behar da. » Udal taldea eta MP dauden herrietan funtzioak ondo bereizteko eta distortsioak ekiditeko proposamena hausnartu behar dugu. Zentzu honetan Tokiko batzarrari misio bat esleitzea falta zaigu.

PLATAFORMA TELEMATIKOA

Garaian hartutako erabakiak	Aurreratutakoa	Hutsuneak/egokitzeak/indartzeak
EH Bilduk plataforma telematiko indartsu bat garatuko du, besteak beste, honako aukera hauek eskainiko dituenak: » Erreferendumak bide telematikoaz egiteko aukera. » Biltzar eta Batzar Nagusien eskura luzapen telematiko bat jartzeko aukera, eztabaidei eta erabakiak hartzeari dagokienez. » Noranzko anitzeko komunikazioa, bilkideen artean edo EH Bilduko antolaketa aparatuen artean. » EH Bilduren jakintza esplizitua eta inplizitua kudeatzea.	Kongresualdi honetan, Elkarrekin plataformaren itxura aldatu dugu, diseinuan eta ohiko aplikazioen funtzionalitatean arreta jarrita. » Hainbat dimentsio eta mailako hautaketa prozedurak egin dira, eta bai hautagaiak, bai proposamen politikoak, bai proposamen programatikoak berretsi dira. » Pandemiaren biharamunean, Batzar Nagusiak online jarraitzeko aukera eman zen. Egoera baretzean, batzarrak jarraitzeko ez bada ere, izena emateko, materiala eskuratzeko eta bestelakoe-tarako baliatu da. » Kanpaina, dinamika edo eztabaida prozesuetako materiala eta bitartekoak eskuratu eta ekarpena egiteko baliatu da.	Nahi baino denbora gehiago behar izan du tresna telematiko horren definizioak eta garapenak eta datozen hilabeteetan argitaratuko da. » Noranzko anitzeko komunikazioan, bilkide eta militanteen arteko komunikazioan sakondu behar da, horizontalki erlazionatzeko eta hausnarketa eta ekarpenak bideratzeko. » Hartzaileak segmentatzeko urratsak egin behar dira. Publiko konkretuei eduki zehatza bideratu eta hartu-emanak elikatzeak. » Hautetsien esparrua birplanteatu behar da, udalgintza herrigilearen filosofiari erantzun diezaiola.

3. Ondorioak

Oro har, balantzea baikorra da:

- » Garaian marraztutako eskema organizatiboa egokitzat jotzen dugu, doiketa, egokitzapen eta zehaztapen batzuk (aurreko koadroan zirriborrutakoak) behar baditu ere.

Orain, zeregin behinena antolakuntza eta funtzionamenduan ditugun erronka nagusiak eta horiei erantzuteko antolaketa-ereduan ditugun egokitzapenak zehaztea da.